

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2022-10-03	19:10	21:10

**BILDUTAKOAK:**

<b>Udal ordezkariak:</b>	<b>Jexux Leonet, Olga Leibar, Jon Del Olmo eta Goratz Gezala</b>			
<b>Herritarrak: 28</b>	Euskaraz: 21		Elebitan: 7	
	Emakumezkoak: 14		Gizonezkoak: 14	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 1	51-65 urte: 23	>66 urte: 4

**AKTA:**

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
<b>Aurkezpena</b>	Sarrerako aurkezpen labur baten ondoren prestaturiko aurkezpenari ekiten zaio.
<b>2022 urtea</b>	Herritarrekin eta Goienerrekin sortutako kooperatibaz galdetzen dute informazio gehiagoren eske, ea proiektua nola aurkitzen den. Zaintzaren inguruko inkesta non entregatu daitekeen galdetzen dute. Lantxeko aretoari buruz galdetzen da, nola funtzionatuko duen, zer lokal dauzkan,...
<b>2023eko aurreikuspena</b>	Aurrekontuen aurkezpena, sarrera eta gastuak,...
<b>Auzoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arditurriko komunen ordutegiez, noiz irikitzen diren eta noiz itxi. Askotan itxita daudela.</li> <li>- Ea jadanik daudenez gain (arditurri, altzibar, ugaldetxo) beste komunik jartzeko aukerarik ote dagoen. Altzibarko frontoi berriaren ondoan egingo da, baina ez da besterik aurreikusten.</li> <li>- Arkaleko torrean zaborren ondorioz berriz ere istiluak daudela aipatzen da. Egingo den itxiturak ez duela ezer konponduko eta arazoa jendea eta kaioak direla esaten da. Ea gantxoetan seguro/pestillo txiki bat edo</li> </ul>

jartzerik ba ote dagoen galdetzen da, horrela, zirrikitutik zakar poltsa hutsak ez ateratzeko. Arazoak berdin jarraituko duela.

- “Berami” eta “Alhambrako” plazoletetan kotxeak sartzen dituzte, gehiago bijilatzea eskatzen da eta beharrezkoa bada, isunak jartzea eskatzen da.
- Autopistako irteeran panelak jartzea soinua gutxitzeko.
- “Aldi”ko oinezkoen “pasabidea”; jendea mediana gainetik pasatzen da, semaforoa ezartzea eskatzen da. Errepidea aldundiarena da eta beraien erantzuna da, horrela ondo dagoela. Ikusirik Aldundiak ez duela semafororik jarriko, alde bietan baranda jartzea eskatzen da, inor pasa ez dadin eta semaforora joan behar izateko.
- Semaforoak 15 segundu dauzka soilik eta oinez oso larri pasatzen da.
- Auzoak 50 km/h abiadura dauka eta horrela zergatik dagoen galdetzen da, 30 km/hko abiadura ezartzea eskatzen da.
- Semaforoko peatoien botoia ez dabilela, Arragua aldekoa.
- Trailerrak sartzen dira arragutatik gora, behin eta berriz hautsi dute galiboa mugatzeko barra eta baita kotxe batzuk jo ere. Galiborako jartzen den barrari argiak jartzea proposatzen da.
- Berriz ere ateratzen da helbidearen gaia, aurreko urtean bezela. Gogorarazten da bizilagun denak ados egon behar dutela helbidea aldatzeko eta proposamen kolektibo bat egin behar dutela udaletxera.
- Semaforotik ateratzean anbulategi aldera bidea zelaian egina dago, espaloia moldatzeko eskatzen da jendeak egiten duen bidera.
- Aldeguna elkarteko bidegurutzean “batxe” bat jartzea proposatzen da errepidean polikiago ibiltzeko.
- Arraguako ARR1 eta ARR2 promozioetan ekipamendua bezala eskatu, dagoen anbulategian lehen arreta jasotzeko aukera. Errebisioak egiteko aukera.
- Anbulategiko parkinean STOP markaren ondoan jendeak kotxea aparkatzen du ez delako ondo ikusten hori sarrera denik. Marra horiz margotzea izan daiteke aukera bat hor inork kotxerik utzi ez dezan.



## 2023KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



### BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	7,67
bilera ongi gidatu da	7,81
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	7,52
Auzotar kopurua	4,7
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	6,71
Saioa probetxugarria izan al da?	7,5
Egunaren egokitasuna	8,05
Orduaren egokitasuna	7,95
Lekuaren egokitasuna	7,86